

5.- KAPITALISMOA BIDE GURUTZEAN: MUNDUKO EKONOMIA GERRARTEAN

5.1.- Lehenengo Mundu Gerraren ekonomi eta gizarte ondorioak.

Lehen Mundu Gerra baino lehenagoko hazkunde fasea: 1873. urteko depresio Handiaren ostean, eta batez ere 1890etik aurrera mundu-mailako hazkunde ekonomikoa nagusitu zen, eta izan ere, hau izan zen inperialismoaren garai gorena.

Hazkunde horretan ez-egonkortasun faktore asko. Herrialde industrializatuen arteko lehia areagotu zen, eta horrekin batera protekzionismoaren erabilera arma komertzial gisa, muga-sari altuagoen ezarpenarekin alegia.

Britania Handiak bere lehentasun ekonomikoa galtzen zioan, batez ere AEBri eta Alemaniari pasu emanez, eta hegemonia argi bat ez egoteak ez egonkortasunak ondorioztatu zituen mundu mailako ekonomian. Honi lotuta areagotu ziren koloniei lotuta egon ziren lehiak eta potentzien arteko tirabirak. Beraz, arazo kolonial hauek, Balkanetako auzia (non Serbia eta Austria-Hungaria inperioak aurrez aurre ikusi ziren) eta Frantzia eta Alemaniaren arteko errebantxismo gehituta, Lehen Mundu Gerrarako aurrekariak emanak zeuden.

- Merkataritza-harremanen krisia gerra garaian: gerra, azkenik, 1914-1918 bitartean gauzatu zen, eta modu batean edo bestean, mundu osoari eragin zion azkenean. - - Merkataritza-harremanentzat oztopo izugarria izan zen gerra, eta horren ondorioz elkartrukeak izugarri murriztu ziren. Merkataritzan aritzeko debekuak, produktu batzuen gaineko kontrol estuak eta are esportazio debekuak min handia egin zioten mundu mailako trafikoari.
- Horri gerra ekonomiaren erabilera gehitu behar diogu, etsaiaren ekonomia kaltetzeko ekintza zuzenak erabiltzea alegia, batez ere merkataritza blokeoa. Baian aldi berean, gerraren ondorioz beste zonalde batzuen industrializazio bultzada txikia eman zen, industrializazio prozesuen bitartez hain zuzen ere.
- Nazioen ekonomiaren aldaketa, gerrarako bideratua: gerrak baliabideen desbideratze handi bat ekarri zuen, bake jardueretatik gerra jardueretarantz alegia. Herrialde guztia gerraren zerbitzuan. Industria zibilen krisia, gerra industria bilakatzeko. Eta emakumeen enpleguaren areagotzea industria arloan, eta gizarte-aldaketa nabarmenen hasiera(mugimendu feministaren susperraldia).
- Estatuaren interbentzionismoa: garai honetan estatuaren dirigismoa, interbentzionismoa eta esku-hartzea ekonomian nabarmenki handitu zen. Lege eta arau ekonomikoak etengabe ugaltu ziren eta errazionamendua inposatu, zenbait produktuen prezioen finkatzearekin batera. Horrek guztiak laissez-fairearen printzipioak apurtu zituen.
- Gerraren ondorio demografikoak: populazio galera izugarriak ondorio ekonomiko nabarmenak ekarri zituen. Galera militar osoak 8,5 milioikoa izan zen, baina kontuan hartu behar da gehienak gazteak zirelaeta, ondorioz, galera horien eragin ekonomiko

handiagoa izan zela. Horri guztiari gainera, jaiotze defizitak gehitu beharko genizkioke.

- Kapital galerak eta gerran zehar eramandako gatazkan oinarrituriko ekonomia: bestalde, txikizio fisikoak eta kapital-galerak nahiko handiak izan ziren. Gerrarako orientazioak desorekak sortu zituen, industri ehunean batez ere, bakerako egokitzapena ez zelako erraza izan. Industria arlo batzuk gehiegi garatu ziren eta gerra ondoren hain produkzio handiki gaitzen zuen eskaria.

- ESTATUAK ZORDUNDU→INFLAZIOA→URRE PATROIAREN

PORROTA

II. Internazionalaren frustrazioa gerraren aurrean: gatazkak gizarte-ezinegona areagotu zuen. Honen inguruan langile mugimendu berri eta sendoago baten eraketa gauzatzen hasi zen, II. Internazionala baztertuz, eta langileek parte hartze politiko handiago bat eta antolamendu-indarra sendoagoa nabarmendu zuten. Horrela eratu zen III. Internazionala, partidu komunista berrien inguruan. Presio horrekin estatu batzuen demokratizazio prozesua sakondu zuten. Baina onartu beharra dago estatu demokratiko ahuldu egin zela Europan 1920 eta 1930eko hamarkadetan, faxismoen agerpenarekin batik-bat.

-Europaren hegemonia ekonomikoaren gutxitze nabarmena, AEBren mesederako: gatazkak aukera eman zien beste herrialde batzuei munduko produkzioan eta merkataritzan zuten parte hartzea areagotzeko. Gainera Europaren eta mundu erdiaren hartzekodunak bilakatu ziren estatu batuak, aliatuei emandako gerra-mailegu erraldoiei esker.

-Gerra ordainketak(Versalles), berreskurapena motelduz eta sorgin-gurpila: gerra-ordainketen arazoa izan zen gerraren ondorio larrienetakoa eta epe luzeko ondorioak izan zituen. Diru asko zen Alemaniak aliatuei eta batez ere Frantziari ordaindu beharko zizkionak. Horrek, errebantxismo politikoa elikatzeaz gain, betebeharrak horiek izugarritzko desorekak sortuko zituzten merkataritza eta burtsa arloan. Ordainketen ondorioz, sorgin-gurpil bat sortze joango zen, ustekabeko ondorioak izango zituenak. Alemaniak Frantziari ordaindu, diru hori AEBri eman zorrak kitatzeko eta AEBek diru hori Alemanian inbertitu.

- Ekonomiaren eragina duten ondorio geopolitikoak: gerraren amaieran sinatu ziren bake-itunek ere Europako maparen berrantolaketa sakon bat ekarri zuten, ekonomiaren ikuspuntutik nahiko negatiboak izan zirenak. Muga ugari aldatu ziren, irizpide-etniko-nazionalak jarraitu ez zituztenak eta ez bereziki ekonomikoak. Aldaketa horien kostu ekonomikoa handia izan zen.

OROKORREAN EMAITZA NAHIKO EZ-EGONKORRA IZAN ZEN, 1920KO HAMARKADAKO BERRESKURAPENEAN ERAGIN NEGATIBOA IZAN ZUENA

5.2.- Hogeiko hamarraldiko ezegonkortasuna.

Lehen Mundu Gerra ondoren garai ekonomiko ez-egonkor bat garatu zen, hiru etapatan banatu daitekeena:

-1go etapa: 1919 eta 1921 bitartean. Gerra osteko lehenengo urteak, prezioen eta salmenten gorakada izugarria izan zuen, hazkunde ekonomikoaren seinale, zeinaren kausa nagusia gerra urteetan zehar erreprimitutako kontsumoaren eztanda izan zen. Baina gorakada labur horren ondoren krisia eotri zen: 1919tik aurrera merkatua bat-batean kizkurtu zen, nazioarteko trafikoa gutxitu zen, AEBek trabak jarri zizkieten Europatik zetozen inportazioei, prezioak jaitsi ziren. Krisi honek esan nahi zuen gerrako ekonomi garai zailak 1921 arte luzatu zirela.

-2. etapa: 1921etik 1925era. Susperraldi bat bizi izan zen herrialde gehienetan, baina giro ez oso baikor batean: langabezia tasak, adibidez, nahikoa altuak mantendu ziren. Hau izan zen Alemaniaren hiperinflazioaren garai gogorrena alegia.

-3. etapa: 1925 eta 1929 bitartean. Hazkundera egonkorragoa izan zela dirudi. Garai honetan bueltatu zen Britania Handia gerra aurreko erre-patroiaren diziplinara, eta horregatik bere ekonomia ez zen beste herrialdeetan bezain beste hazi. Baina egoera baikor honen azpitik indar ilunagoak ari ziren metatzen, 1929ko krisiak laster frogatuko zituenak.

- Gerra ondorengoko laguntzak: II. Mundu Gerraren ostean ez bezala, gatazka honen ondoren apenas ez ziren laguntzarik eman Europaren berreraikuntzarako, eta izan ere, eman ziren laguntza urriak, gehienbat elikadurakoak, 1919eko suspenditu egin ziren, AEBek soberakin asko zituen arren.

-Alemaniaren hiperinflazioa: hasiera batean inflazio txiki bat zen, txanponaren devaluazioarekin batera, ondo etorri zitzaion Alemaniari bere berreraikuntza hasteko eta industri-produkzioa hazteko. Diru jaulkipenek bezala, prezioek igotzen jarraitu zuten, eta laster diruak geroz eta gutxiago balio izan zuen eta horrek aurrezki desagerrarazi eta kapital-eraketa oztopatu zuen. Frantziako armadak Ruhr-eko arroa okupatu zuen, bertako ondasunak eta industria-produkzioa zuzenean bahitzeko helburuarekin. Bertako biztanleek erresistentzia pasiboa egin zuten eta hori finantzatzeko gobernuak diru jaulkipenera jo zuen, hiperinflazioaren egoera are gehiago okertuz.

- Protekzionismoaren bultzada: gerra ostean protekzionismoaren areagotzeak ikusiko ditugu, nazionalismo politikoaren eta ekonomiaren hazkundearekin batera, nabarmen murriztu zen trafikoa. Merkataritza uzkurtu egin zen, aduana gehiago zegoen eta muga-sariak igo ziren. Egile batzuek neomerkantilismoaz hitz egiten dute. Ekonomian nazionalak, beraz, itxiagoak, autarkikoagoak eta buruaskiagoak bihurtu ziren.
- **Gizarte-egoera 1920ko hamarkadan:** aberastasunaren gizarte-banaketetan ez zen aurrera pausorik eman, kontrako baizik: desberdintasun sozialen hazkunde orokor bat gertatu zen. Inflazioak ere langile askoren aurrezki txikiekin bukatu zuen Erteuropan, eta langabezi-tasak gerra aurretik baino altuago mantendu ziren. Merkatuak, beraz, ez ziren gehiegi hazi, eta honek laster superproduktzio krisi batera zeraman, stocken pilaketa handiaren ondorioz.
- **Gerra aurreko sistema ezartzearen saiakera:** estatu batzuek erre-patroia berriro indarrean jartzen eta gerra aurreko parietatea berrezartzen saiatu ziren. Beste batzuek ordea, parietate baxuagoak ezarri zituzten, devaluaziora jotzeko asmoz. Beste herrialde batzuek aldiz, hiperinflazioaren desastrearen ondorioz txanpon berriak ezarri behar izan zituzten.

Azkenean urre patroiare sistema ezin izan zen berriro jarri indarrean bere osotasunean. Eta edonola ere, ez zen inoiz bueltatu gerra aurreko bezain sistema egonkorra izatera, eta ez zuen hazkundera bereziki lagundu.

5.3.- Krisi Handia.

Krisiaren iturburua, New Yorkeko Burtsaren krak-a: saltzen eta erosten ziren akzioen kotizazioak etengabe igotzen ari ziren 1925ez geroztik eta mugimendua oso espekulatiboa bihurtzen ari zen. Ohiko inbertitzaile iaioez gain, jende ugari sartu zen burtsa-jokoan eta interes tasak baxu mantendu ziren. 1928Ko bukaeratik ordea, ekonomia errearen martxa mantsotzen ari zen eta hazkunde tasak zertxobait jaitsi ziren eta salmentak gutxitu ziren. Kotizazioak asko joan ziren jaisten eta kredituak kitatzeko akzioen salmenta masibora jo zuen jendeak, sekulako galerak sortaraziz espekulatzailen, maileguak eman zituzten bankuen eta burtsa-bitartekarien artean.

Krak-aren ondoko egoera: bankuek kredituak murriztu zituzten eta haietako batzuk kiebran sartu ziren, bezeroak izutuz eta aurrezkiak erretiratzera bultzatu zituena. Langabezia handitu, eskaria kizkurtu, gastua eta kontsumoa murriztu, salmentekin batera, prezioak erori ziren...

KRISIAREN ZERGATIAK AUTORE DESBERDINEN IKUSPUNTUTIK

- Friedman: AEBren kreditu politika ez-egokia izango litzateke, kredituak izugarri garestitu ziren, eta egoera latzagoa bihurtu zuen, eta honek esate du bankuei kredituak eman eta erraztu behar zitzaizkiela.

- Temin eta Kindleberger: krisia hauen ustez, I. Mundu Gerraren ondorio bat izango litzateke, gerrak utzitako panorama ez-egonkorren aurrean AEBek uko egin ziotelako munduko ekonomi liderra izateari.

-Sylos Labini: honen ustez kapitalismoaren superproduzio eta azpikontsumo krisi klasiko bat izan zen, hau da, hamarkadan zehar produktibitatea asko hazi zen, baina ez hainbeste soldatak.

-Krisia ekonomikoak European: Alemaniak eta Italiak faxismoaren bidea hartu zuten erronka ekonomikoari aurre egiteko; Britania Handia, ordea, inperioan babestu zen. Hala ere, guztiek barneratzen zuten, maila handiagoan edo txikiagoan, estatuaren esku hartze ekonomiko handiago baten beharra.

NEW DEAL:

Franklin D. Roosevelt-ek hartutako neurriak krisiari aurre egiteko eta 1933tik aurrera hasi zirenak ezartzen:

- Diru arloan: urre-patroiarekin hautsi egin zen, dolarraren esportazioa eta altxorketa debekatu zen eta devaluazio bat dekretatu zen, esportazioak bultzatzeko helburuarekin.
- Nekazaritza arloan: Agricultural Adjustment Act legea ezarri zen, zeinaren arabera diru-laguntzak, kredituak eta estatu-erosketak erabili ziren prezioei eusteko eta produktu batzuen lanketa mugatzeko superproduktzio murrizteko asmoz.
- Industria arloa: enpresen arteko konpententzia mugatu eta haien arteko elkarlana areagotu nahi izan zen, superproduktzioaren arriskua sahiesteko.
- Gizarte arloa: eskubide gehiago eman zitzaizen sindikatuei, helburua azken batean soldatak igotzea zen, kontsumoa berpizteko. Gainera, lan publiko zabalak egiteari ekin zioten, langabezia murrizteko.